

ZINEGOtzia

FERMIN ETXEGOIEN



n a r r a t i b a

ZINEGOTZIA

Narratiba, 80

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezka kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2013ko maiatzean

Azalaren diseinua:

Asier Beltza

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Aitor Arana

© Fermin Etxegoien

© EREIN. Donostia 2013

ISBN: 978-84-9746-845-9

L. G.: SS-806/2013

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Fermin Etxegoien

ZINEGOTZIA



Esker ona:

*Gobernu-taldean izan ditut –milesker!–
Jone Larrañaga, Itziar Aranguren,
Isabel Etxeberria eta Ines Intxausti.*

Herriaren zerbitzariet eskainia.

Eskumako zinegotzia berandu esnatu zen Euskal Herriaren independentzia bere eskutik etorri zen egunean. Udaberriko egun hartan zer eta nola gertatu zitzaion kontatuko dizuet hemendik aurrera, independentziari dagokionez eskumako zinegotzia gizon apala izana zelako eta bizimodu *pasiboa* eraman zuelako beti, independentziaren alde modu kontzientean ezer egiten ez dutenen bizimodua: zergatik gertatu zitzaion gertatu zitzaiona?

Hamaikak hamar gutxitan, oso berandu, altxatu zen ohetik, egunean zehar gertatu behar zuten hainbat txiripa edo *sinkronizitate* egoerarako abiapuntua. Pertsiana altxatzean argitasunaren indarrak begiak itxiaz zizkion, ia. Segidan, logelako leihoak zabaldu zituen eta hego haize ufada epela etorri zen lorategitik, eskumako zinegotzia eta familia bizi ziren seigarren pisuraino igota. Ikaraz sentitu zuen zinegotziak lore usaina gelan zehar zabaltzen, etxe azpian ziren arbolek sekulako alergía eragiten ziotelako egun batzuetan, eta ordubetez gutxienez azkurak sufritu behar izaten zituen begietan, sudurrean eta eztarrian. Inoiz itotzetik gertu sentiarazteraino.

Ez zitzaion halakorik gertatu eta arnasa kontzienteki hartu zuen eskumako zinegotziak, nahiz tentu handiz arnastu, era berean posible jotzen zuelako mehatxuak airean jarraitzea. Gainera zinegotzia beti saiatzen zen zuhur jokatzeko bizitzaren arrisku handi zein txikien aurrean, etengabeko zuhurtziak norbera *oso modu mugatuan* bizitzera kondena balezake ere. Baina gure zinegotziak ezingo zuen kondena goxoagorik imajinatu, “hegalak zabaldu gabe” bizi beharra ez zitzaiolako inolaz ere zigorra, baizik eta helburu inkontzientea. Gizateriaren parterik handienarentzat seguruena izan ohi den bezala: aukeran asperduraren mugan bizirautea.

Gauzak horrela, goiz hartan nornahiri izango zitzaion ezin igarritzailea bizimodu arrunta, are, aspergarria, zeraman eskumako zinegotziak askatu beharko zituela, egunaren akaberan, mendeetan zehar eta gizaldiz gizaldi Euskal Herriaren independentziaren inguruan korapilatu izan diren indarrak: alde, kontra, bat eta beste.

Egia da gertaerak gertatu ziren boladan independentziaren aldeko giroa inoizko sutuena zela, bai etxean bai eta kanpoan ere: Kataluniak bazuen ezarria independentziari buruzko erreferendumaren data 2014an eta Eskozian ere 2014rako aurreikusten zuten botazioa. Bost urte lehenago besterik ez, ezin inork asmatu, independentziarako bidean katalanen zein eskoziarren atzetik ibili beharko zuenik Euskal Herriak, hain zuzen gure zinegotzia agertu zen arte. Baina ez gaitezen aurreratu; momentuz ostegun goiz arrunta besterik ez da eskumako zinegotziaren etxean eta bakarrik

dago, seme bikiak institutuan daudelako eta emaztea harategian, lanean.

Egunero bezala zinegotzia joatekoa zen gosalduraren ostean, goiz hartan berandu ailegatu behar bazuen ere, bezperan udaletxean izandako botazio berezia asko luzatu zelako, eta horregatik altxatu zen biharamunean normalean baino beranduago zinegotzi-harakina: ia-ia goizaldera arte luzatu zelako ezkerreko alderdi independentistak udaletxean, non eta agintean baitzen gehiengo osoz, antolatutako Euskal Herriaren independentziari buruzko botazioa, Goiate herriko udaletxea osatzen zuten alderdi guztietako zinegotziek independentziaren alde ala kontra bozka zezaten, edo bestela abstenitu zitezten.

Bai horixe; bi urtebete lehenagoko udal-hauteskundeetatik agintean ziren gehiengo osoz ezkerreko independentistak alkatetzan, eta uste izatekoa zenez Goiate herriko udaletxean trabarik gabe nagusitu ziren Euskal Herriaren independentziaren aldeko botoak, aurka botatu bazuen ere gure zinegotziaren alderdiak, eskumako zinegotziaren alderdia oso gutxitan agertzen zelako munduaren aurrean independentista gisa eta normalean autogobernuaz *baino* ez zelako mintzatzen, zehaztu gabe estatu propioa beharrezko ikusten zuen ala ez Euskal Herrirako.

Autogobernuaz *soilik* mintzatuz zinegotziaren alderdia nagusi izan zen herrian eta probintzian (edo herrialdean, nahiago baldin baduzue) urte askoan, baina baziren bi oposizioan zela bai herrialdeko aldundian bai alkatetzan. Francoren heriotzaren ostean hauteskundeak egiten hasi

zirenetik zinegotziaren alderdia lehen aldiz oposizioan, alkatetzaz zein aldundiaz erabat jabetu ondoren –marka da gero– hogeita hamahiru urtez jarraian.

Kide eta *sinpatizante* mordorentzat *shock* itzela izan zen alkatetza zein aldundia “ezkerreko independentisten aurka” galtzea, baina ondoren Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeak –autonomikoak– etorri ziren eta argi eta garbi irabazi zituen hauteskundeok zinegotziaren alderdiak. Pentsa ote zitekeen, beraz, euren *boto-mugara* ailegatuak zirela ezkerreko independentistak, hain zuzen gure zinegotziak pentsatzen zuen moduan?

–Krisialdi ekonomikoa ikaragarri larriagotu den arren!

“Zer egiteko gauza izan dira bi urtean ezkerreko independentistak krisiaren aurka?”, galdetu zion bere buruari zinegotziak. “Hasteko, ze erremedio, gastuak murriztu, Europako eskuineko alderdiak ere, a ze kointzidentzia, gauza bera egiten ari dira eta!”. Baina zerbait gehiago beharko zen ekonomia biziberritzeko, eta zinegotziaren ustez eskuineko alderdiak baziren, ezkerrekoak ez bezala, “egin beharrekoa egiteko prest”: funtsean dirua irabazteko aukerak “berriro sortu” enpresarioentzat eta inbertsoreentzat, langileen esku-bideak murriztu behar bazituzten ere.

–Tristea da, baina munduak horrela funtzionatzen du, bestela ez duelako funtzionatzen.

Ezkerreko politika eginez gero, ordea, kapitalari lagundu gabe eta berdintasuna bultzatuz, zinegotziaren ustez askoz zailagoa, ia ezinezkoa bilakatzen zen aberastasuna sortzea, eskumako zinegotziaren arabera kontzeptu kontrajarriak

baitziren berdintasuna eta aberastasuna: *konformismoa* eta *ambizioa* bezain aurkakoak.

Bizimodu arrunta eramaten saiatzen zen arren, ikusten denez gure zinegotziak bazuen munduaren funtzionamendu politikoa ulertzeko bokazioa, normalean bere baitarako eginiko ariketa, baina horregatik zekien, hain zuzen, sekula ez zuela bere burua hartu “serioski” ezkerrekotzat, gazte garaian “ia beste aukerarik” izan ez bazuen ere, eskumako zinegotziaren gaztaroan ia ezinezko bilakatu zelako norbera gutxi ala asko “marxista” ez kontsideratzea, dudarik gabe marxismoa izan zelako hirurogeita hamarreko hamarkadako gazteen artean publikoki aitortzeko moduko sinesmen nagusia, orduko gazteen guraso gehienak, gure zinegotziarenak barne, oso fededun eta elizkoiak baziren ere.

Urteak aurrera joan ahala, are konklusio bitxiagoetara ailegatzen hasi zen eskumako zinegotzia beren burua, urteak aurrera joan arren, ezkerrekotzat “hain modu harroan” hartzen jarraitu zutenei buruz, gure zinegotzia konturatu baitzen gazte garaian nagusi izan zena, sistemaren aurka edonor mintzatzea, ia desagertutzat jo zitekeela handik urte gutxi batzuetara, jende “normala” sistemaren mekanika “gogo onez” onartzen hasi zen seinale.

Eskumako zinegotziari hain zitzaion begi-bistakoa “jende normalaren barne-adostasuna” sistemarekiko, ezen erne zitzaion susmo berri bat:

–Ezkerreko “aho-beroek” berdintasunezko gizartearen beharraz hitz egiten diote munduari, abiapuntuz kontrakoa

adierazi arren: berdintasunezko gizartearen alde mintzatzen direnen nagusitasun morala!

Baina ezkerrekoa izateak, noski, inor ez zuen “on” bilakatzen, ezkerreko askok “ozen eta lau haizeetara” kontra-koa zabaltzen bazuten ere: onak zirela ezkerrekoak zirelako. Apaizak eta mojak, noski, “on” bilakatuko ez ziren moduan ordenatze hutsaren hutsez. Tira; gutxienez, apaizek eta mojek uko egiten zioten, ezkerreko zibilek ez bezala, munduko plazerei... *haragia* barne. Nola egingo zitzaion “tokia”, bada, ontasun espiritualari norberaren barruan? Apaizek eta mojek egiten zuten moduan: norbera hustuz ontasun materialez, *haragia* barne. Gainerako eskuindar jendeari zego-kionez denetarik bilduko zen eskuindarren multzo zabalean, munduko putakumerik handienak barne, baina eskuindar zibilek inori ez zioten matrakarik emango “berdintasun materialaren ezinezko helburuarekin”.

Krisiak bete-bete harrapaturik egonda, orduan, eskuinaren esku utzi beharra zegoen sistemaren antolaketa berriro, eskuinak aberastasuna sor zezan enpresarioen arteko lehiakortasuna bultzatuz. Milioika europarrek “bazekiten” sistema eskuinekoa zela *berez*, eta horregatik ematen zieten botoa, Frantziako ohiko salbuespenarekin, eskuineko alderdiei; prest baziren ere, eskuineko alderdi horiek, langileen eskubideak murrizteko.

–Botoa ematen dietenenak barne!

Dena “oso tristea”, bai horixe, krisialdiaren errudun, inor izatekotan, eskuinekoak izango zirelako eta ez ezkerrekoak, onartzen zuen gure zinegotziak. Errudun baino,

delitugile: sistemak ahalbidetzen zuen “espekulatzeko aukera zilegia” iruzur eta lapurreta bilakatu zutelako.

–Zer da, bada, aberastasuna sortzea *plusbalioak* sortzea baino?

Haragiaren prezioarekin gertatzen zen moduan, haragiak garestitu behar izaten baitzuen baserritik harategirako bidean eta baita ondoren harategiko mostradoretik erosleen eskuetara igarotzean ere.

–Ez al dira beharrezkoak plusbalioak *denok* irabazteko?

Hala eta guztiz, gure zinegotziak onartzen zuen, ezin ez onartu, azken urteotako espekulazioa “neurri guztietatik kanpoko” izan zela, batez ere finantzetan eta eraikuntzan. “Delituzko espekulazio-tsunami, eskuineko zein ezkerreko politikari ustelek bultzatua”, azpimarratzen zuen. “Ustelkeria kontuetan ez zelako alderik nabaritu eskuinaren eta ezkerren artean, edo?”.

–Guri deitzen diguzue ustel eta *korrupto*, ezkerrekoak ez garez kapitalaren lagunak garelakoan, baina gu zerbait izatekotan euskaldunak gara: jende noblea, salbuespenak salbuespen. Orduan ez konparatu, mesedez, ez gu konparatu ustelkerian etengabe zikindua den Espainiako eskuinarekin!

Espainiako eskuina ala Euskal Herrikoa; desberdintasun nagusia, hangoa arrunt ustela zela eta hemengo ez, “salbuespenak salbuespen”, nahiz eta Espainian ezkerria izan, eskumako zinegotziaren ustez, askoz okerragoa.

–Erruki, ezkerria administrazioan luze izandako tokietan...

Espainiako administrazioan ezkerreko kargu publikoak hasieratik ugaritzen zirelako, baita diru publikoak xahutzen zituztelako ere. Ba ote zuen zerikusirik aipatu portuak Euskal Herriko ezkerrenarekin?

Bestela galdetuta: zer gerta zitekeen Euskal Herriko hainbeste tokitan luze egonez gero boterean ezker abertzalea? Hasieran ezer ez, ezer txarrik ez ustelkeria kontuetan, zioen gure zinegotziak. Euskaldunak zirelako ezker abertzalekoak? Bai eta ez, erantzuten zion bere buruari, hasieran euskalduntasuna –*noblezia*– nagusituko zitzaielako boterera ailegatu berri ziren ezker abertzalekoei ere, noski, baina eskumako zinegotziaren ustez askoz garrantzitsuagoa zen “nondik zetorren” ezker abertzalea, “hiltzen zutenak *txalotzetik*” etortzeak lagundu behar baitzion ezker abertzaleari “zeregin mundanoetan” zintzoki jokatzeko.

–Adibidez aurrekontu publikoak banatzen.

Gure zinegotziaren ustez, bazen arestiko arrazoibide krudela azaltzen zuen “mekanismo psikologiko sinplea”: ezker abertzaleko partaide ugari terrorismo basatiaren bidez hiltzen zutenak txalotzen ibili zirenez gero –ez hildakoak txalotu, noski, baizik eta hiltzaileak–, alde etikorik garrantzitsuena alboratuta geldituko zen txalo jotzaileen bizitzatik –“ez duzu hilko” dioen agindu nagusia– eta oso litekeena zen trukean beste alde etiko batzuk bereganatu izana “terrorismoa txalotzen” aritu izan ziren pertsonok.

Alegia: ezker abertzaleko askok urte askoan bere burua “hustu” egin zuten giza etikaren alde oso garrantzitsu batez –*Ez duzu hilko* dioen aginduz: inportanteena gure heziketa

katolikoaren arabera—, baina trukean giza etikaren beste alde ez hain garrantzitsu batzuentzako zabalduko zuten “haien espazio pertsonala”, adibidez, *Aurrekontu publikoak zintzoki banatuko dituzu* dioen aginduarentzako.

Ezin gordinago esanda: “hil izan zutenek” trukean prest zeuden gainerako kontuetan ezin zintzoago jokatzeko, muturreko fededunekin askotan gertatzen den bezala. Bertan ote zegoen Espainiako ezkerren eta Euskal Herriko ezkerren arteko desberdintasunik garbiena? Ba seguruenik bai: Espainian ezkerreko alderdi nagusian militarizazioak norberaren promozioa, botere mailan zein ekonomikoki, ekar zezakeen eta askotan ekartzen ziren ezkerreko politikari demokrata ustelei, baina Euskal Herrian inortxo ere ez zen ezker abertzale “antidemokratikoan” militarizazioak bere burua promozionatzeko, are gutxiago helburu ekonomikoekin. ETA desagertu izanak, orduan, sekulako aldaketak ekar zitzakeen aurrerantzean etika mailan... nahiz ez beti onerako!

ETA eta etika, bai hitz elkarketa basatia, a ze urte nahasiak bizitzen ari ziren, bai politikoki bai ekonomikoki. Halere “burbuila urteek” eragindako depresio sakonari buruz “dena aitortzen hasiz gero”, eskumako zinegotziaren ustez *dena* aitortu beharra zegoelako, espekulazioaren aroa ez zen soilik kalterako izan, baizik eta “baita onerako ere”: ikustea besterik ez zuen egin behar gure zinegotziak “zenbat etxe eta zenbat auto” erosi ahal izan ziren herriko familia gehienetan, edo nola hobetu ziren herriak eta hiriak, baita haiek lotzeko beharrezkoak ziren errepede eta autobiodeak ere.

–Zenbat balio du kilometro bateko tunel bat zula-
tzeak eta ekipatzeak? Eta zenbat balio du gutxienez hamar
tunel dituen gure edozein autobide berrik?

Sekula santan burutuko ez ziren erosketa pertsonalak
–etxeak, autoak, bidaiak– eta azpi-egiturak –autobideak, hi-
rietako zein herrietako hobekuntza planak– erosleen eta ad-
ministrazioen esku izan ez balira sekulako diru kopuruak.
Agian izango ziren burbuila urteetan sorturiko kapital be-
harbada irrealak, ados, finantzetan eta eraikuntzan puztu-
riko diru-irabazpide beharbada gezurtiak, horrela deitu nahi
izanez gero, baina *egiazko* gauza asko erosteko eta egiteko
balio izan zuten, bai horixe, “oinarririk gabeko” dirutzok.

–Kapitalismoa ez zen asmatu, akabo ba, milioika
lagun pobrezia bidaltzeko, baizik eta kontrakorako: mi-
lioika lagun pobreziatik ateratzeko!

Total; krisialdia sakondu ahala gero eta eszeptizismo
handiagoz hartzen zuen ezkerreko independentisten balizko
nagusitasuna Euskal Herrian eskumako zinegotziak, uste
zuelako nekez igoko zirela gorago eta bat zetorren ezkerreko
independentistak hainbat tokitan boterera “behingoz” aile-
gatu izana komenigarria izan zela ziotenekin, sistema kapi-
talistaren logikak erabat zapuztu behar zuelako ezker
abertzalearen teoria politikoa oso laster. Hain zen erraza
nork bere burua ezkerrekotzat jotzea, hain zaila izan arren
ezkerreko politika egitea eta asmatzea! Eta alderantziz: bazen
erraza eskuineko politika egitea, baina ia ezinezkoa jendeak
eskuinekotzat aitortzea bere burua. Gure zinegotziaren
ustez, Euskal Herrian modu bereziki sektarioan bizi izan zen

sindrome “prepolitikoa”: ezkerreko jendea *baino* ez al zegoen justizia sozialaren alde?

Bestela galdetuta: ezkerrekoa ez zena “berez” al zen putakumea? Mesedez, gauza infantilagorik! Laster etorriko zen ezker abertzalearen teoria politikoarekiko *deslilura*, ezinbestez etorri behar, boterera ailegatutako oro, zioen gure zinegotziak, “putakume” bilakatzen zelako beti, berdintasunaren aldeko politikagintza eginez gero aberastasunik nekez sortzen zuelako, zein alderantziz.

Baina ezker abertzalearen teoria politikoarekiko “deslilura” gertatu aurretik etorri egin zena independentziari buruzko botazioa izan zen, Euskal Herriko udaletxe guztietan deitua eta denetariko emaitzak ekarri zituen: botazioa egin zen udaletxe gehienetan independentziaren aldeko botoak nagusitu ziren, baina kontua da udaletxe pilo batean –eskumako zinegotziaren alderdiak nagusi izaten jarraitzen zuen guztietan– ez zela botaziorik egin, eta ezezkoak irabazi zuela beste zenbaitetan.

Aipatutako hiru egoeretan ikusi zuen bere burua gure zinegotziak, hasieran pentsatu baitzuen ez zela botaziorik egin behar, baina gero piztu zitzaion independentziaren aldeko botoa emateko gogo, nahiz eta azkenean, alderdiak aginduta, kontra botatu zuen, eta bitartean haserretu zen bai beste alderdietako zinegotziekin bai alderdi barrukoekin.

2013ko ekainaren 6ko goiz hartan, ordea, zinegotziari ulergarriago egiten zitzaion bezperako nahasmen eta akordio falta, are berak bere buruarekin izan zuen desadostasuna, bezperan “guztizko aho-bateratasuna” gertatu izan balitz

baino, biharamunean zinegotziari ez zitzaiolako erraza egiten jakitea “zein zen bere ideologia” independentziarekiko. Ez zegoen kontra; etorritz gero etor zedila, baina “pena” moduko zerbait ekarriko zion, zergatik ez, Espainiatik irteteak, konturatzen zen gure zinegotzia “aski infantila” zirudien sentipenaz bat eginda.

Anputazio moduko zerbait sentituko zuelako ez soilik modu abstraktuan, eta adibidez “arrakala” sortuko zen, beste *nazio* batekoa bilakatuz gero, gure zinegotziak bereziki maite zuen Errioxako eskualdearekin. Kirolaz ez mintzatzearren! Bat Formulako Fernando Alonso pilotua maite zuen eskumako zinegotziak bereziki –“Espainiako historian izaniko kirolaririk onena, alde handiz”–, eta pena emango zion Alonsoren nazio kidesasuna galtzeak.

Aski argudio infantilak, bai horixe, eskumako zinegotziak onartzen zuelako, nola ez zuen onartuko, Euskal Herriaren independentzia ez zela txantxa bat, eta sekula ez zuen bere burua jarriko independentziaren aurka. Baina besterik zen “posible ote zen” independentziara ailegatzea, baita merezi ote zuen ere, ikusirik zein zaila zirudien Espainiak onartzeak eta zer esanik ez Frantziak. Gainera onartu beharra zegoen jende asko ez zetorrela bat Euskal Herrian bertan, eta zinegotziaren ustez lehenago etxean osatu behar zen “ia gehiengo erabatekoa” independentziaren alde. Ez bakarrik Goiate herrian, baizik eta Euskal Herri osoan, bestela handiegia zelako gerra zibil edo istilu larrien arriskua. Nork igarriko, egunaren akaberan inoiz ez bezala gurutzatuko zirenik Euskal Herriko herritarrek independentziaren gainean

historikoki erakutsitako alde zein aurkako jarrera infinituak, gure zinegotzia bilakatu arte “ezinbesteko lotura” Euskal Herriko ia zinegotzi guztiek sinatutako independentzia agirian!

Independentziaren inguruan ordura arte ezagututako iritzi eta jarrera gurutzaketa amaiezinari bukaera zerk, eta gure zinegotzia gainerako zinegotzien buru ageri zen agiriak emango ziola, baina momentuz ostegun goiza besterik ez da eta zain du harategia harakinak, emaztearen aldamenean igaro beharreko beste egun bat aurretik milaka egunetan egin bezala, bere zoriaz zeharo konforme eta bizitzari besterik eskatu gabe.

Harakina animatu zen zinegotzi ardurak hartzera urte batzuk lehenagoko *eszisioak* alderdi barruan eragindako zau-riak atea ireki zionean, hain zuzen alderditik joandako batzuek irekitako atea. Harategikoaren gainean “Bixen eta Kristina” jartzen zuen uztaiari, euskal letra tipikoekin idatzia. Osandui auzoko harategi bakarra zenez, senar-emazteek aise eusten zioten negozioari, egoera ekonomikoa iraganean bezain oparoa ametsetan ere izan ez arren. Aspaldian oso-oso motel mugitzen zen dirua; eskerrak senar-emazteei asko laguntzen zieten harategian saltzeko Kristinaren amak etxean prestatzen zituen platerak. Auzoko mugak gaindituta, herri osoan fama handia hartu zuten besteak beste txipiroiek eta batez ere pil-pil bakailaoak.

Dutxatik irten zenean, egunkariak sarean begiratu zituen Bixenek, jakiteko zertan gelditu zen independentziaren inguruan bezperan antolatutako bozketa handia. Ez zuen eta etxera heltzerakoan begiratu nahi izan, oso amorraturik

zetorren eta, bileran izan ziren gainerako zinegotzi ia guztien aurka, “denetarik” entzun behar izan zuelako bertan: faxista bat zela, hobe botaziorik ez egitea ziotenekin elkartu zenean; nortasunik gabeko txorimalo bat zela, independentziaren aldeko botoa emango zutenekin bat etortzean; eta traidore anti-abertzalea zela, ezezko botoa azkenean eman zuenean. Halere gogoratzen zuen besteei ere antzeko leporatzeak egin zizkietela zinegotzi gehienek, ordura arte ez bezala elkarri oso modu pertsonalean aipatuta bakoitzaren bizimodua, familia eta baita ondarea ere. Kurioski bezperako giro txarrak erakusten omen zion biharamunean zinegotziari “zein artifizialak” ziren ideologiak, udaberriko goiz atseginean “tokiz kanpo” ageri bailiran herrikideen arteko talka posibleak oro.

Sarean irakurri zuenez, botazioa egin zen udaletxe gehienetan baiezkoak irabazi zuen, baina kontua da ez zela botaziorik egin eskumako zinegotziaren alderdiak nagusi izaten jarraitzen zuen udaletxeetan eta azkenean independentziaren alde ageri ziren udaletxeak gutxiago izan ziren ezezkoak irabazi edota botaziorik egin ez zen udaletxeen arteko multzokoak baino. Total: aurreko gauean independentzia “ez-irabazle” irten zen Euskal Herrian, Goiate herrian “gutziz irabazle” irten arren!

Bi urte lehenago nork igarriko, hogeita hiru urtez jarraian gure zinegotziaren alderdiaren esku izaniko sorterriak zer, eta bi urte geroago bai independentisten esku bai independentziaren alde agertu behar zuela gehiengo osoz. Nola hartuko zuen Goiateko biztanleen gehiengo berriak eskumako zinegotziaren alderdiaren ezezko botoa? Galderari

bere baitan erantzun gabe, baina galdetu izanak barnean utzitako pozoi zaporea igarriz, lanerako arropa jantzi zuen Bixenek: praka bakeroak eta mahuka laburreko alkandora koadrodun laranja berria, hilabete lehenago hirira egin zuten erosketa txango batetik ekarria eta Kristinaren ustez Bixeni urte gutxi batzuk kentzen zizkiona, edo gutxienez zituen berrogeita hamarrekoen marra apur bat ezabatzen ziona, du-darik gabe alkandora modernoa zelako eta gainera agertzen zuen halako *tentetasun* bat sorbalden gainean, gazteen arropenen antzekoa.

Kristinaren ustez “harrotasun neurtua” ei zen itxurarik egokiena dendarako, ala berretsi behar izango ote zion bere buruari “ni saltzailea naiz” Bixenek, atzera gogoratuz behin batean Kataluniako herri txiki eta galdu samarrean Kristina eta biak agertu zireneko eguna, Girona eta Lleida autoz lotu nahian zebiltzala? Artean guttiz eraiki gabe zegoen “eix transversal” izena hartu behar zuen errepide nagusia eta bigarren mailako txikietan nahastu ziren senar-emazte gaiak. Janari apurra erosteko gelditu behar izan zuten bide bazterreko herrixka ezezagun batean eta Bixenek ez zuen aurrerantzean ahantziko harakin gaztea eta neskalguna plaza nagusiko *ultramarinos* denda zaharrean atenditu zituen agure trajeduna, hura zen-eta komertzioa preziatzea, katalanek egiten bazekitena “baita herririk ñimiñoetan ere”, agurearen heziketak berbaz zein jokabidez edonori, izan bertako izan kanpotar, erakutsiko zion legez. Betiko gorde behar zuen Bixenek agure saltzailearen irudia barnean, ongi jakin arren bakoitza mundu bereizian bizi zela.